



Usurbilgo Udala

2020KO MAIATZAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA TELEMATIKOAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkateorde-Lehendakaria

Beñat Larrañaga Urdanpilleta

Zinegotziak

Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Ez dira bertaratu: Agurtzane Solaberrieta Mesa eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2020ko maiatzaren 28an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Beñat Larrañaga Urdanpilleta izan da Batzarburua.

Beñat Larrañaga alkateordeak ongietorria eman die eta azaldu du Agurtzane Solaberrieta alkatea ondoezik sentitzen zela eta ezin izan duela pleno honetara bertaratu.

Presazko gairik ez zegoenez eta begirunez eta gizalegez, goizean pleno hau astebetzez atzeratzen saiatu direla dio, baina ezin izan dela. Patxi Suárez-i eskerrak eman dizkio egoera ulertu duelako eta prest zegoelako plenoa atzeratzeko. Aldiz, EAJren aldetik plenoa atzeratzeko borondaterik ez dela egon esan du.



Usurbilgo Udala

Beraz, legeak hala ezartzen duelako eta, batez ere, beraiek talde lanean oinarritzen direlako, modu arduratsu batean gai guztiak tratatzeko prest daudela jakinarazi du.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/04/30EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko apirilaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO APIRILAREN 27TIK MAIATZAREN 15ERA (2020/257-2020/314).

Alkatetzak 2020ko apirilaren 27tik maiatzaren 15era bitartean (2020/257-2020/314) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-81 (ZUBIETAKO KASKOA) EREMUKO HEU 81.4 EXEKUZIO UNITATEKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Lur Etxeberriak azalpenak eman ditu. Hirigintza batzordeak diktaminatuta datorrela esan du eta eremua kokatu du.

Jarraian, diktamenean jasota datorren moduan aurrekariak aipatu ditu eta baita bertan proposatzen diren erabakiak ere.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2019-0121

AURREKARIAK

BIZKORTZEN S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa aurkeztu dute dagokion izapidetzea izan dezan.

Alkatetzak 2019ko maiatzaren 31ean, udal teknikariek aldeko txostenak kontutan izanik, 2019/0500 zenbakidun dekretuaren bidez, zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa hasieraz onartzea.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (107. zenbakia): 2019-07-07
- BERRIA: 2019-06-04
- GARA: 2019-06-01
- EL DIARIO VASCO: 2019-06-04

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.

INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUA

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 98 artikuluan eta Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren 44 artikuluan jartzen denaren arabera (211/2012 Dekretuaren 3.3 artikuluekin bat etorruta), Xehetasun-Azterketaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren izapidea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari dagokio. Gauzak horrela, 2019ko maiatzaren 31ean, Xehetasun-Azterketari dagokion dokumentazioa eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzara igorri ziren zegokion txostena eskatuz.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzak oraindik ordea, ez du ingurumen-txosten estrategikorik eman.

Geroztik ordea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 DEKRETUA eman du (EHAO, 63. zkia; 2020-03-31).

Hau kontutan izanik, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2020ko maiatzaren 12an honako txostena eman du:

UA2020_01_01

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate andreari

PLANEAMENDUA

HEU 81.4 EXEKUZIO UNITATEKO XEHETASUN AZTERLANARI TXOSTENA

KOKAPENA: A-81, heu 81.4. exekuzio unitatea, Zubieta, Usurbil.

ESKATZAILEA. BIZKORTZEN S.L.U.

ESKAERA DATA; 2019ko maiatzaren 21a

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2019-0121



Usurbilgo Udala

AURREKARIAK:

1. 2019ko otsailaren 18an BIZKORTZEN S.L.U.-ren izenean HEU 81.4. exekuzio unitateko Xehetasun Azterlana aurkeztu du Udalak izapidetu dezan.
2. Alkatearen 2019/0500 dekretua xehetasun-azterketa hasieraz onartuz.
3. Haserako onspena GAO-n argitaratua 2019ko ekainaren 7an, jendaurreko erakustaldiari hasera emanaz.

TXOSTENA:

Aurrekarietan azaldu bezala Zubietako HEU 81.4. unitateko Xehetasun Azterlana haseraz onartu zen Alkatearen 2019/0500 Dekretuaren bidez eta jendaurreko erakustaldian egon da, alegaziorik jaso gabe. Hala, behin betiko onspena jasotzeko Ingurumen Ebaluazioa izapidetu beharra ondorioztatu zen bere garaian.

Aldiz, 2020ko martxoaren 31ean EHAO-an argitaratu zen 46/2020 DEKRETU-ak, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antola-menduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak honakoa dio 6.2. artikuluan:

“6. artikulua.– Lurralde- eta hirigintza-plangintza ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jartzea

(...)

2.– Ez dira ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri behar ez xehetasun-azterlanak, ez eraikingintza- edo hirigintza-ordenantzak, ez arkitektura- edo hirigintza-ondarea babesteko katalogoak, ez baitira plantzat hartzen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera. Gainera, prozedura hori ez da beharrezkoa, halakoak garrantzi txiki-koak baitira eta ez baitute batere gaitasun berritzailerik, hirigintza-antolamenduaren ikuspegitik.”

Dekretua hau EHAO-n argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, transizio epe edo salbuespenik ezarri gabe jada martxan dauden ingurumen espedienteetan. Beraz, gauzak horrela, esan daiteke, **ZUBIETA HEU 81.4. unitateari dagokion Xehetasun Azterlanak ez duela Ingurumen Ebaluaziorik behar eta ondorioz, haren izapidetzearekin jarrai daitekeela.**

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2012ko maiatzaren 12an

UDAL ARKITEKTOA
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune



Usurbilgo Udala

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suárezen aldeko botoekin luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.4 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketaren behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea, Xehetasun-Azterketaren izapidetze gastuak helaraziz.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

[Etenaldi bat gertatu da konexio-arazoengatik, arazo hauek konpondu ondoren plenoari jarraipena eman zaio 3. puntuaren bozketarekin]

4.- MATIA - A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUETAKO GARAPENA – HOBARIEN ESKAERAREN AZTERKETA.

Gai hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko batzarkideek aho batez pleno honetan tratatzea erabaki dute.



Usurbilgo Udala

Lur Etxeberriak gai honi buruzko azalpenak eman ditu. Matiak %50eko hobari eskaera egin duela esan du. Puntu hau plenora ekarri dela dio udal honetako Ordenantza Fiskalen 11.1. artikuluko d) puntuaren baitan, jarraian aipatutako puntua irakurri du: “%50ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta aurreko puntuan aipatutako Ondare Katalogatuaren 1go eta 2gn kategorian ez daudenean. Udalak onartuta duen Hirigintza Plangintza Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, 3gn kategorian, agertzen direnean hobaria zuzenean aplikatuko zaie; izan ere, Hirigintza Plangintza hau Udal Batzarrak bere garaian onartu zuen. Gainontzeko kasuetan, hau da, Ondare Katalogatuaren zerrendan agertzen ez direnean, izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”

Kasu hau gainontzeko kasuetan sartuko litzatekeela adierazi du.

Jarraitu du esanez beraien ustez proiektu hau udal onurakoa dela. Bizitzen ari garen Covid-19aren egoera larri honek begibistan utzi duela dio zaharren zaintzan krisi garbi bat dagoela, eredu aldatu beharra dagoela uste dute, garbi ikusi dela dio adinekoak ze baztertuta eta isolatuta eduki ditugun. Oraingo sistema honek gabezi larriak dituela ikusi da. Beraz, zaintza eredu aldatu beharra ikusten dute eta adinekoak etxean bezala bizi-proiektua bultzatzea. Zentzu horretan proiektu hau berritzailea eta aintzindaria dela azpimarratu du. Proiektu integratzaile bat bezala definitu du bai arlo arkitektonikoan eta baita arlo sozialean ere, eta puntu garrantzitsuenak aipatu ditu, herri onurako proiektu bezala defendatuz.

Josune Urkolak esan du Lur %50eko hobariak ari dela baina hemen %90ekoa ere aipatzen dela. Galdetu du ea %50eko hobari hau Udalak Matiarekin sinatuta daukan hitzarmenaren baitan aplikatuko den.

Lur Etxeberriak adierazi du irisgarritasunari eta efizientzia energetikoari dagozkien hobariak ez dituela aipatu zuzenean aplikatzen direlako, hauek ez dute plenotik pasa beharrik, bai ordea %50eko hobariak, ordenantza fiskaletan jasota dagoen moduan.

Xabier Olano kontuhartzaileak adierazi du kasu honetan mugatzen dituztela, batetik, Gipuzkoa osoan indarrean dagoen Foru Arauak eta, bestetik, Usurbilgo Ordenantza Fiskalak. Foru Araua permisiboagoa dela dio, Ordenantza Fiskaletan aldiz onartuta daukatela dio automatikoki aplikatuko dela efizientzia energetikoa hobetzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergetan %95eko hobaria eta irisgarritasuna hobetzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergetan beste %90a. Ordenantza fiskaletan hirugarren aukera bat ematen dela dio udal onurakoak diren instalazio eta eraikuntzetan %50eko hobaria aplikatuko dela baldin eta udalak udal onura hori aitortzen badio.



Usurbilgo Udala

Beñat Larrañagak, Lur Etxeberriak azaldu duena laburtuz adierazi du obra hau herri onurakoa izango dela uste dutela eta %50eko hobaria aplikatzeko proposamena egiten dutela.

Batzarkideek, Matia Servicios Sociales, S.L. enpresak egindako eskaera kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Matia Servicios Sociales, S.L. enpresak Usurbilgo A-96/A-97 Miravalles eremuan eraikitzeak duen zentro gerontologikoa dela eta, honako idatzia aukeztu du:

“Suplica, que teniendo por recibido este escrito se sirva admitirlo y en su virtud se proceda a aplicar el 90% a las partidas vinculadas a la mejora de la accesibilidad y eficiencia energética y el 50% al resto de las obras, tal y como establece la ordenanza municipal de Usurbil.”

Ordenantza fiskaletako 4. puntuan Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga jasotzen da eta bertan hainbat hobari aipatzen dira:

“VII. HOBARIAK

11. Artikulua.

1.- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hobariak onartu ditu Usurbilgo Udalak:

(...)


d) **%50ko hobaria**, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta aurreko puntuan aipatutako Ondare Katalogatuaren 1go eta 2gn kategorian ez daudenean. Udalak onartuta duen Hirigintza Plangintza Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, 3gn kategorian, agertzen direnean hobaria zuzenean aplikatuko zaie; izan ere, Hirigintza Plangintza hau Udal Batzarrak bere garaian onartu zuen. **Gainontzeko kasuetan, hau da, Ondare Katalogatuaren zerrendan agertzen ez direnean, izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”**

Ordenantza fiskaletan jasotzen dena kontutan hartuta, Udalbatzarrak gehiengoz honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo A-96/A-97 Miravalles eremuan Matia Servicios Sociales, S.L. enpresak eraikitzeak duen zentro gerontologikoa Udal onurakoa dela aitortzea eta ondorioz aipatutako obrei Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergan %50eko hobaria aplikatzea.

Bigarrena: Interesatuari, hirigintza sailari eta kontuhartzaitzari jakinaraztea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- HAINBAT UDAL ESPEDIENTEREN SUNTSITZE PROZEDURA (GIZARTE ZERBITZUAK 2. FASEA).

Gai hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko batzarkideek aho batez pleno honetan tratatzea erabaki dute.

Beñat Larrañagak diktamenean jasotzen den moduan udal artxiboaren egungo egoera azaldu du.

Oraingo honetan suntsitzera bideratzea proposatzen dira Gizarte Zerbitzuetako saileko 23 espediente mota, guztira 1.427 espediente eta 77 kutxa.

Prozesu guzti honen baitan, horrelako proposamenak hemendik aurrera plenora maiz ekarriko dituztela adierazi du.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Usurbilgo udal artxiboak bi arazo larri ditu, toki falta eta segurtasun neurriak ez betetzea, dokumentazioa jasotzeko leku arazoak daude udaleko sail guztietan eta artxiboan aspaldian ez da dokumentazio berririk hartzen, lehenago aipatu bezala toki faltagatik.

Dokumentuek maila desberdinetako balioak dituzte, hau da, sortuak izan zirenean balio zehatz bat edukiko zuten baina espedientearen ixtean balio hori galdu eta bigarren mailako bat duten ala ez baloratu behar da. Beste hitz batzuk erabiliz, espedienteek etorkizunean balio informatibo edo historikoa badute, betirako gordeko dira, bestela, xahuketa bidez aterako dira artxibotik (edo udal departamentu desberdinetatik).

Usurbilgo Udalean 2019. urtean hasi eta hurrengo urteetan aurrera eraman nahi den xahuketa prozesua, DOBAUBAK (Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak) ezarritako irizpideak jarraituz egiten ari da, beti ere prozesu guztiaren erregistro eta kontrol zehatza bermatuz, gardentasunez.



Usurbilgo Udala

Lehenengo fasean, Gizarte Zerbitzuetako sailean Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eta Oinarrizko errentaren laguntza eskatzeko espedienteen xahuketa egin zen.

Bigarren fase honetan, Gizarte Zerbitzuetako kutxa eta espediente hauek xahutzea proposatzen da:

1. Ur, zabor eta estolderi zergaren hobari eskaera
2. Etxebizitzarako prestazio osagarria
3. Laguntza psikologikoa eta juridikoa
4. Osasun asistentziarako eskubidearen errekonozimendu eskaera
5. Egonaldi baterako eskaera
6. Eguneko zentroan sartzeko eskaera
7. Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioen eskaera
8. Laguntza teknikoak edo espezializatuak eskaerak
9. Mendekotasuna baloratzeko eskaera
10. Ezgaitasuna baloratzeko eskaera
11. Ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartelaren eskaera
12. Taxi-bonua programaren eskaera
13. Telelaguntza zerbitzua eskaera
14. Dirusarrerak bermatzeko laguntza
15. Pertsona kanpotarra gizartaratzeko udal txostena.
16. Kotizatu gabeko pentsioen eskaera
17. Udal jabegoko etxebizitzaren eskaera. Larrialdietarako etxebizitza
18. Etxez etxeko laguntza zerbitzua
19. Zahar egoitzan sartzeko eskaera
20. Familia ingurunekeo zaintzetarako prestazio ekonomikoaren eskaera
21. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
22. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren eskaera
23. Adinekoei laguntzeko Sendian programa

Xahutzeko kutxa eta espediente kopurua:

- Espedienteak: 1.427
- Kutxak: 77

Udal artxibariaren txostena kontutan hartuta, Udalbatzarrak gehiengoz honako erabakia hartu dute:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuaren 30. eta 33. artikuluetan jasotakoa betez, –Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena (2000. urteko abenduaren 11ko 235. zenbakidun EHAA)– jarraian aipatzen den agiri-seriearen zatikia suntsitzeko proposamena egitea.

Agiri-seriearen identifikazioa

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa
----------	-------------------------




Usurbilgo Udala

Serie-izendapena	Ur, zabor eta estolderi zergaren hobari eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	022	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-05-03		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 128	Data 2012-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	139 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1996-2012
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Etxebizitzarako prestazio osagarria				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	190	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	21 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2010-2011
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Laguntza psikologikoa eta juridikoa eskeintzeko espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	025	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-05-03		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 128	Data 2012-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	29 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1995-2013
Oharrak					



Usurbilgo Udala

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Osasun asistentziarako eskubidearen errekonozimendu eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	035	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-10-31		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 231	Data 2012-11-29	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarrri den aukeratze-proposamena	Erabateko ezabatzea, bainan epea zehaztu gabe. Bulegoko artxiboan suntsitzea aipatzen denez, itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	18 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1992-2006
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Laguntza behar duen adineko pertsonentzako edo desgaitasuna duten pertsonentzakoaldi baterako egonaldi-eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	191	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarrri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	59 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1996-2010
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Eguneko zentroan sartzeko eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	186	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarrri den aukeratze-proposamena	Egonaldia bukatu eta 6 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	58 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1998-2012




Usurbilgo Udala

Oharrak	
---------	--

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Gizarte-ongizateko funtsaren pentsio espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	144	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2015-05-20		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 123	Data 2015-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarki den aukeratze-proposamena	Laguntza iraungi ondoren, 6 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	5 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1990-2013
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Laguntza teknikoak edo espezializatuak eskatzeko espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	017	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-05-03		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 128	Data 2012-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarki den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	96 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1994-2014
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Mendekotasuna baloratzeko espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	193	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarki den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				



Usurbilgo Udala

Suntsitzeko unitateak	234 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2002-2013
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Ezgaitasuna baloratzeko eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	192	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	301 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1986-2013
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartela eskatzeko espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	020	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-05-03		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 128	Data 2012-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	92 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1990-2014
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Taxi-bonua programaren eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	185	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				




Usurbilgo Udala

proposamena					
Suntsitzeko unitateak	20 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1996-2011
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Telelaguntza eskatzeko espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	021	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-05-03		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 128	Data 2012-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Zerbitzua amaitu ondoren erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	43 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1997-2013
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Diru-sarrerak bermatzeko eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	183	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	6 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2012-2014
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Gizarte-sustraitzea egiaztatzeko txostenak emateko espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	031	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-05-03		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 128	Data 2012-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den	Espedientea itxi eta 2 urtera bulegoko artxiboan erabat suntsitzea				




Usurbilgo Udala

aukeratze-proposamena					
Suntsitzeko unitateak	17 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2006-2010
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Kotizaziorik gabeko pentsioen espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	143	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2015-05-20		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 123	Data 2015-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezari den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 6 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	75 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1991-2012
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Gizarte larrialdietarako udal etxebizitzaren espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	142	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2015-05-20		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 123	Data 2015-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezari den aukeratze-proposamena	Harrera etxean egonaldia amaitu eta 6 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	20 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1992-2013
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	100	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2013-06-03		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 122	Data 2013-06-27	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				




Usurbilgo Udala

Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	62 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1987-2014
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Zahar egoitzan sartzeko eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	145	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2015-05-20		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 123	Data 2015-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 6 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	79 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	1992-2013
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	188	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	28 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2008-2014
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	187	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				



Usurbilgo Udala

Erakundea					
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	10 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2008-2014
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren eskaera espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	189	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2017-03-28		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 71	Data 2017-04-11	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	4 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2009-2011
Oharrak					

Artxiboa	Usurbilgo Udal Artxiboa				
Serie-izendapena	Adinekoei laguntzeko, Sendian programa eskatzeko espedienteak				
Seriearen kodea (DOBAUBA)	019	Taulen onartzearen ordena-data	Ordena 2012-05-20		
		EHAako argitaratze-data eta zbkia.	Zbkia. 128	Data 2012-07-02	
Jatorria Erakundea	Osasun eta Gizarte zerbitzuak				
Ezarri den aukeratze-proposamena	Espedientea itxi eta 5 urtera erabat suntsitzea.				
Suntsitzeko unitateak	11 espediente	Euskarria	Papera	Azken datak	2006-2013
Oharrak					

BIGARRENA: Proposamena Eusko Jaurlaritzako Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordera (DOBABA) bideratzea aipatutako agiriak suntsitzeko baimena eman dezan.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- 2021 URTERAKO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

Gai hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko batzarkideek aho batez pleno honetan tratatzea erabaki dute.

Beñat Larrañagak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu proposamenean jasotzen den moduan eta 2021eko herriko jaieguna uztailaren 2a izatea proposatzen dela adierazi du.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.02/2020-0051

Maiatzaren 8ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean maiatzaren 5eko 56/2020 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanerako Jaiegunen Egutegi Ofiziala 2021. urterako onartzeko dena, argitaratu da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2021 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen da.

Aipatu dekretuaren bigarren artikuluan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango direla.

Horietako bat, uztailaren 31a izatea aurreikusten da, Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politikarako Lurralde Ordezkaritzatik jasotako oharrean udal honi jakinarazi zaionez.

Hau guztia horrela, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: 2021eko Santixabel eguna, uztailaren 2a (ostirala) herriko jaieguna izatea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN KRISIA DELA ETA, USURBILGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Gai hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko batzarkideek aho batez pleno honetan tratatzea erabaki dute.

Patxi Suárezek adierazpena irakurri du.

Batzarkideek, aho batez onartu dute adierazpen instituzionala, honela dio:

“COVID-19ak ERAGINDAKO OSASUN KRISIA DELA ETA, USURBILGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Munduko Osasun Erakundeak koronabirusak (Cov) afekzio ugari —burutik beherako arrunt batetik gaixotasun larriagoetaraino— eragin ditzaketan birusen familia zabal gisa definitzen ditu.

Egungo Covid-19 2019ko abenduaren 31ra arte gizakiengan aurkitu ez zen koronabirus-andui berri bat da. Egun horretan hauteman zen lehen aldiz Wuhan (Txina) hirian.

Covid-19 gizarte osoan, modu globalean, eragiten ari da. Eta horregatik, guztiok inoiz baino gehiago bat eginda egon behar dugu une honetan pandemiaren hedapena galarazteko.

Hori guztia kontuan hartuz, Usurbildo Udalean ordezkartza duten udal-taldeek, Covid-19k eragindako osasun krisiari eta bere ondorioei elkar harturik erantzun nahi diegu, eta honako adierazpen instituzional hau onartzea adostu dute:

- Usurbilgo Udalak bere doluminak adierazten dizkie Covid-19aren ondorioz hildako guztien familiei. Eta senitartekoa galtzeak eta haren bizitzaren azken egunetan bere ondoan ezin egon izanak familia horiei eragindako samina partekatzen du eurekin.
- Usurbilgo Udalak gaixotasun honek kutsatu dituen pertsona guztiei herriaren babes solidarioa helarazi nahi die. Eta ahalik eta azkarren senda daitezten opa die.



Usurbilgo Udala

- Usurbilgo Udalak eskerrak eman nahi dizkie usurbildarrei lehen unetik erakusten ari diren jarrera eredugarriagatik, elkar-zaintza, elkartasuna eta erantzunkidetasuna oinarri. Halaber, konfinamendua arintzeko fasean bagaude ere, ez lasaitzeko, arduratsu izaten jarraitzeko eta erakunde ezberdinetatik gomendatzen ari diren babes eta osasun neurriak betetzeko eskatu nahi diegu.
- Usurbilgo Udalak gure herriaren esker ona adierazi nahi die ospitaletan, egoitzetan edo osasun-zentroetan, gau eta egun eta etenik gabe, gaixoak zaintzen eta COVID19ari aurre egiten ari diren osasun-langile guztiei.
- Usurbilgo Udalak eskerrak ere eman nahi dizkie, besteak Covid-19 birusetik babestuta egoteko, euren lanpostuetan lanean jarraitzen duten langile guztiei, adibidez, zahar-egoitzetako langileei, supermerkatuetako langileei, garbitzaileei, udal langileei eta udaltzainei eta suhiltzaileei, garraiolariei, irakasleei, etab.
- Usurbilgo Udalak osasun-sistema publikoari babesa eskaintzeaz gainera, herritar guztiek osasun-arreta jasotzeko eskubidearen unibertsaltasuna defendatzeko eskatzen die eskuduntza duten gobernuei.
- Usurbilgo Udalak eskuduntza duten gobernuei ere eskatzen die Covid-19 gisako pandemiekin amaituko duten txertoak lortzeko osasun-ikerketarako baliabide gehiago bideratzeko.
- Usurbilgo Udalak erakunde publiko guztiei (Europako Batzordea, Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) elkarren arteko ahalik eta lankidetzaz zabalena eskatzen die, Covid-19ak eragin duen krisiaren ondorioak arintzeko ekimenak eta laguntza publikoak koordinatzeko. Eta zehazki, une honetan okerren pasatzen ari diren talde zaugarrienei laguntzeko.”


Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, adierazpena aho batez onartu da.

8.- UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAREN GAINEAN AURKEZTUTAKO EH BILDUREN MOZIOA ALDE BATETIK, ETA EAJ-PSOEREN MOZIOA BESTE ALDETIK.

Bi mozioak batzorde batek diktaminatu gabe datozenez, hasteko batzarkideek aho batez pleno honetan tratatzea erabaki dute.



Usurbilgo Udala

Beñat Larrañagak adierazi du lehendabizi mozioa EH Bildu udal taldeak aurkeztu zuenez mozio horrekin hasiko direla.

Beñat Larrañagak EH Bilduk aurkeztutako mozioa irakurri du.

Jarraian, Josune Urkolak EAJk eta PSOEek elkarrekin aurkeztutako mozioa irakurri du.

Beñat Larrañaga adierazi du oso ondo dagoela mahai bat eratzeko proposamena, beraien aldetik ere lehenengo momentutik eskatzen dutena da erabakiak era partekatuan hartzea, baina kasu honetan erabakia alde bakarrez hartua izan dela salatu du eta mahai horrek aurretik izan behar zuela.

Ezer gutxirako balioko duela dio mahai bat elkartzeak hiru hilean behin, kasu honetan Finantzen Lurralde Kotseilua eratuta dagoena, erabakiak komunikatzeko bakarrik baldin bada. Mahaiak behar dutela dio elkar-jartzeko, elkar-partekatzeko eta elkarrekin adosteko, ez alde bakarrez udalei finantziazioa mozteko.

Kasu honetan, Bizkaian eta Araban beste malgutasun bat erakusten ari direla esan du negoziaketan edo epeetan malguago jokatuz, baina Gipuzkoako udalei %20ko murrizketa ezarri zaiela azpimarratu du inolako datu fidagarririk gabe. Martxoaren 31era bitarteko zerga bilketaren arabera bakarrik, eta noski jakina dela dio momentu horretan Covid-19ren eraginez zerga bilketa hori kaltetua izan dela. Baina datuek hala erakusten dutenaren arabera zerga bilketa horren murrizketa ez da %20ren ingurukoa izan baizik eta %10-11-12ren ingurukoa. Horiek dira hainbat ekonomilarik ere aipatzen dituzten portzentaiak.

Aipatu duen bezala, ez dutela ulertzen dio aldebakarrez hartzea erabaki hau, ez dute ulertzen zergaitik %20a edo zergaitik ez den itzaroten hilabete batzuk datu fidagarriagoak izan arte kopuru zehatzago bat zehazte aldera.

Era berean, aipatu du ordenantza fiskalen baitan Usurbilgo Udalari 4,4 milioi pasatxo zegozkiola, eskubide hori aitortuta zegoela eta legez zegokiola diru hori jasotzea. Alde bakarreko erabaki honekin ordea, inorekin kontrastatu gabe, Usurbilgo Udalari urte bukaerarako 900.000 euro gutxiago emango dizkiotela salatu du. Gaur bertan Usurbilgo Udalari eta Usurbilgo herritarrei zegozkien 300.000 euro kendu dizkiotela azpimarratu du. Eta hitzegiten ari badira krisi baten aurrean daudela, krisi sanitario eta ekonomiko larri baten aurrean, baldin eta hitzegiten ari badira udalak direla herritarretatik gertuen dagoen erakundea, eta udalak badira neurri gehienak aplikatzen ari direlak, udalek beharrik gehien duten momentuan finantziatziora zuzenean erasotuak izan direla gaitzetsi du.

Presaka hartutako erabaki bat dela iruditzen zaie, alde bakarrez eta justifikaziorik gabeko %20a aplikatu zaie, eta modu horretan nekez egin daitekeela aurrera gaineratu du. Usurbilgo Udala osatzen duten talde politikoek aurreko astean eman zuten adibidea dela dio krisi bati erantzuteko adibiderik onena, elkarlana, informazio-



Usurbilgo Udala

trukaketa eta adostasuna. Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalekiko izan duen jarrera erabat gaitzesten dutela adierazi du. Horregatik, EAJ-PSOEek aurkeztutako mozioaren aurka bozkatuko dutela esan du.

Josune Urkolak, Beñatek aipatu dituenei erantzunez, adierazi du badirudiela Foru Aldundiak hartutako erabakia inolako azterketarik egin gabe hartutakoa izan dela.


Foru Aldundiak 2019ko kalkuluak egin zituenean diru-partida bat aurreikusi zuela esan du Udalei %20 gehiago emateko. Foru Aldundiaren betebeharra dela dio dirua biltzea eta diru bilketa horretako partida bat udalei banatzea. Udalei ordainketa urtean lau zatitan egiten zaiela esan du. Urtarrilean likidazioa egiten denean urte batzuetan diru gehiago bildu bada diru gehiago ematen zaie udalei eta alderantziz bada bueltatu egin behar izaten dute. Josunek gogorarazi du 2011. urtean, orduan ere krisi sakon batean zeudenean eta udalen egoera orain baino dezente okerragoa zenean, diru mordo bat bueltatu behar izan zutela. Gaur egun, Usurbilgo Udalak duen egoera ekonomikoa nahiko osasuntsua da, azken Ogasun batzordean aipatu zen bezala, iruditzen zaio guzti honi aurre egiteko gai izango direla.

Beñat Larrañagak erantzun dio inorrek ez duela esan dirurik ez zaienik kendu behar, krisi honen eragina denek jasan beharko dutela eta denen artean erantzun beharko diotela adierazi du; baina lehen esan duena da inolako datu fidagarriarik gabe %20ko murrizketa aplikatu zaiela non eta zerga bilketa zuzenari dagokionez %11-12an dabilen murrizketa. Eskatzen dutena da zergatikan 2. trimestreari dagokion ordainketan ja zuzenean aplikatu zaion, zergatik ez den itxaroten gerorago edo Josunek berak ondo esan duen bezala, dagokion momentuan, hau da, 2021eko otsailean ez diren egiten beharezko egokitzapenak. Dirua orain behar dutela dio, diru hori kontenplatuta zegoela dio orain hainbat gastu egiteko, gainera gastu berriak sortu direla eta orain kendu egin diela.

Lur Etxeberriak gauza bat gehitu nahiko lukeela adierazi du. Josunek 2011koa aipatu duela esan du baina oker ez baldin badago, orduan Udalei diru hori faseka itzultzeko aukera eman zitzaien eta oraingoan ez dute aukera hori, aldea nabarmena dela dio.

Josune Urkolak aipatu du azken Ogasun batzordean adierazi zela Usurbilgo Udala oso egoera onean zegoela. 300.000 euro kendu dizkigute eta orain beharko zuketzen diru hori, baina lehen aipatu duena, diru hori zertarako behar duten galdetzen du zeren badakite murrizketak egongo direla eta diru hori gorde egin beharko dela, ezin dutela jasotzen duten einean gastatu dio, badakitelako %20a gutxienez bueltatu egin beharko dutela. Gaineratu du Foru Aldundiaren aurreikuspenak ez direla %11koak baizik eta %20 eta 25 artekoak.

Beñat Larrañagak erantzun dio grazia egiten diola galdetzea zergatik jaso behar duten diru hori. Diru hori jaso behar dutela dio, batetik, aitortuta zegoelako eta usurbilgo



Usurbilgo Udala

herritarrena zelako eta, bestetik, behar duten edo ez duten behar, iruditzen bazaio 300.000 euro ez dituztela behar.

Josune Urkolak esan dio bere hitzetan ez jartzeko esan ez duena, berak ez duela esan dio herritarrek ez dutenik behar, bakar bakarrik azkeneko Ogasun batzordean Usurbilgo Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua zela esan zela.

Beñat Larrañagak esan dio berak hala ulertu diola, baina dena den udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua izan edo ez, eskubide bat badagokiela azpimarratu du eta eskubide hori beraiena zela, alde bakarrez kendu diena estimazio oso zehatza egin gabe. Dena den remanente bat badutela esan du eta remanente horren erabilera ez dela nahi den eran egitekoa, bere prozedura eta bere mugak dituela. Jarraian, EH Bilduk Espainiako Kongresuan lortu duen akordioa aipatu du, akordio horren ondorioz udalen eta beste erakundeen zorpetze maila haunditzeko aukera egongo da, edo kasu honetan gastu sozialak konputatzeaz libratu ahal izango dira.

Lur Etxeberriak adierazi du ez dakiela 300.000 euroko zifra nondik atera den, oker ez baldin badago 900.000 euroko zifraz ari direla esan du.

Argitu da 900.000 euro urte osoari dagokiola, kendutako lehenengo zatia dela 300.000 eurokoa.

Xabier Olano kontuhartzaileak aipatu du bera ez dela eztabaidan sartuko ez delako hori bere eginkizuna, baina datu batzuk emate aldera uste du behin eta berriz aipatu duen bezala, Usurbilgo Udalaren egoera ekonomiko-finantzieroa nahiko osasuntsua dela eta eskerrak hala den, zeren bestela horrelako kolpe bati aurre egitea udalari asko kostako litzaiokeela uste du.

Hemen aipatu dela dio 2011n ere udalek itzuli egin behar izan zutela eta horri gehitu dio 2010ean eta 2009an ere itzuli egin behar izan zutela, beraz, hiru urtetan jarraian udalek diru funtsetik zegozkien kantitateak itzuli egin behar izan zituztela adierazi du. Kasu guztietan itzulketak urtea amaitu eta gero, otsaileko likidazioa egindakoa eta foru arauak ezartzen zuen epean egin zirela jakinarazi du, eta ez hori bakarrik, batzuetan itzulketak ondorengo urteetan luzatu edo aplazatu zirela ere gaineratu du. Orain egiten dena salbuespenezko egoera bat dela esan du, inondik inora Foru Arauan aurreikusi gabeko egoera bat da, presaz egiten dena eta datuetan ere behar adina oinarritu gabekoa dela uste du. Gipuzkoako udalei zergatik egiten zaien %20ko murrizketa galdetzen du, Araban diru-bilketa %11 gutxitu denean eta Bizkaian %14-15 tartean gutxitu denean eta Gipuzkoan diru-bilketa metatua, Diputazioak jaso duena, murriztu da %12,1, Diputazioak berak publiko egin dituen datuen arabera. Hala eta guztiz ere udalei %20ko murrizketa egin nahi zaie alde bakarrekota eta gainera presaz eta azkar. Galdetzen du Foru Arauak dion bezalaxe zergatik ez den itxaroten urtea bukatu, benetan ikusi eta zehaztu zenbat den murrizketa eta murrizketa hura aplikatu.



Usurbilgo Udala

Hori arrisku konpartituaren printzipioan sartuko litzatekeela dio, udal autonomiaren printzipioan sartuko litzatekeela eta udalekin errespetuz jokatzea litzatekeela dio.

Berak, udal teknikari bezala, neurri hau ikusten du neurritz kanpoko delatzen eta udalei kalte nabarmena egiten diela. Urte bukaeran ikusiko dela dio benetan diru murrizketa zenbatekoa den. Aritu gehienek diotenez %20a baino gutxiago izango dela adierazi du.

Josune Urkolak, Xabier Olano kontuhartzaileari zuzenduz adierazi du uste duela ahaztu egin zaiola aipatzea udalek diru itzulketa egin behar izan zuten urte haietan udalen egoera askoz ere txarragoa zela, zeren kontuhartzaileak esan duela dio "eskerrak Usurbilgo Udalaren egoera osasuntsua den, bestela ez ginatekeen hemendik aterako". Josunek gaineratu du urte haietan nahiz eta egoera txarragoa izan aurrera atera zirela eta orain berdin.

Josune Urkolak adierazi die irakurketa partziala egiten dutela.

Beñat Larrañagak errepikatu dio Josuneri inork ez duela esaten dirua itzuli behar ez denik, hori asumitzen dutela, baina ez dela ez momentua ez modua. 2009, 2010, 2011n egin zen moduan, egoera larriagoa izanagatik ere, udalei epeka ordaintzeko aukera eman zitzaizela gaineratu du.

Lehen aipatu duen moduan, Beñatek uste du aurreko astean eman zuten irudia eta aurretik onartu duten adierazpena direla bidea, elkarlana, elkarjarri eta elkar adostu. Agerian geratzen dela uste du momenturarte behintzat Foru Aldundiaren partetik horrelakorik ez dela egon.

Josune Urkolak adierazi du ados elkarlanarekin baina ez udalean bakarrik, baita Foru Aldundian ere.

Lehendabizi, **EH Bilduk aurkeztutako mozioa** aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

"Maiatzaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei egiten dien diru-banaketan % 20ko murrizketa aplikatzeko Diputatu Kontseiluaren aldebakarreko erabakia. Horrelako erabakiei buruz hitz egiteko toki beharko zukeen Gipuzkoako Finantzen Kontseilua hurrengo egunean bildu zen, eta dagoeneko hartuta zegoen erabakiaren berri emateko izan zen.

Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, EAEko Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu honetan, euskal erakundeen arteko diru-banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, alde guztiek informazioa modu gardenean partekatuta eta inolaz ere ez aldebakarrez.



Usurbilgo Udala

Herrietako zerbitzu publikoak garatzeko ezinbestekoa den finantzazioaz ari gara hizketan, udalen eguneroko kudeaketan eta herritarren bizitzan eragin zuzena duten erabaki politikoez, hain zuzen. Horregatik, honako eskari hauek egiten dizkio Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari:

1. Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren gaineko elkarrizketa abiatzeko udalokin.
2. Berraztertu dezala aldebakarrez hartutako erabakia eta udalekin elkarlanean adostasuna bilatzeko, udalen egonkortasun finantzarioa bermatzeko.
3. Elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaudenez, Gipuzkoako Finantzen Kontseilua udalekin kobernanzarako foro bihurtzeko. Ezinbestekoa da informazioa partekatzea, proposamenak aztertzea eta adostasunak lortzea, ondoren Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezan.

Usurbilgo Udalak erabaki honen berri emango die Gipuzkoako diputatu nagusiar, Ogasun diputatuari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiei eta EUDELeko Gipuzkoako eta EAEko zuzendaritzei.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

Bigarren, **EAJ-PSOE** aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoz ez dute onartu:

“GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK ELKARRIZKETA-MAHAI BAT SORTZEAREN ALDEKO MOZIOA.

Arrazoien azalpena

Maiatzaren 14an EUDELen Batzorde Eragilean proposamen bat eginzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurralde historikoko udalerriek elkarrizketa-mahai bat edo erakunde arteko mahai bat eratu eta antolatzeari buruz.



Usurbilgo Udala

COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizitzen ari garen ezohiko egoera zuzenean eragiten ari da euskal ogasunen diru-sarreretan, Euskadiko enpresen eta familien ekonomian izan duen inpaktuagatik.

Alarma-egoeran erabakitako ekintzek zerga-sarreretan ondorioak izan dituzte, eta erakunde guztiak ari dira ondorio horiek jasaten, baita euskal udalerrriak ere, izan ere, zerga itunduen partaidetzan sarrerak murrizteaz gain, zerga-ordenantzetatik eratorritako sarrerak ere murriztuko zaizkie; osasun-krisia krisi ekonomiko bilakatu baita.

2020ko maiatzaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 3/2000 Foru Dekretu Araua onartu zuen, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzagarik 2020an egin beharreko kontura koordainketak aldatzen dituen eta toki erakundeentzako aurrekontuetan zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen; toki erakundeek erabakitarre handiagoa izan dezaten, kreditu gehigarriak onartzeko, eta baita tasetan hobariak ezartzeko ere, Covid19ak eragindako egoera dela-eta.

Maiatzaren 15ean Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluak aztertu zuen 3/2000 Foru Dekretu Arau horrek zer ondorio izan dezakeen udal finantzetan, Gipuzkoako Udalen Finantzaketarako Foru Funtzaren bidez.

Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da erakundeen arteko elkarrizketa, pandemia honi eman behar zaion erantzuna elkarlanean eta eraginkortasunez aztertzeko. Horregatik, EUDELen Batzorde Eragilean landutakoa helarazten da, eta honako akordio hauek hartzea proposatzen da:


MOZIOA

1. Gipuzkoan elkarrizketarako erakunde-mahai bat sortzeko eskatzea, Foru Aldundiaren eta EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordearen artean; lurraldeko erakunde guztietatik krisiari erantzuteko ekimen eta planen koordinazioa bultzatzeko, eta lankidetzaren eraginkor bat garatzeko, hiritarrentzat erakunde arteko gobernantza hobea lortzearen.

2. 3/2000 Foru Dekretu Arauan Finantzen Lurralde Kontseilua aipatzen da, azaroko konturako ordainketari buruz hitz egitean. Hala ere, kontuan izanik, batetik, krisiaren intentsitatea, eta, bestetik, euskal erakunde maila guztien arteko finantza-harremanak arautzen dituen arrisku partekatuaren printzipioa; inoiz baino beharrezkoagoa da egoera ekonomikoari, diru-bilketa aurreikuspeni eta udalen egoerari buruzko informazioa maiztasun handiagoz partekatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu hiru hilean behin dei dezala Finantzen Lurralde Kontseilua.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.



Usurbilgo Udala

Aurkako botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Beraz, mozioa ez da onartu.

Azken puntuan sartu aurretik, Josune Urkolak adierazi du nola plenoaren hasieran Beñatek esan duen Agurtzaneren ondoeza dela-eta, pleno hau atzeratzen saiatu direla, horren aurrean Josunek adierazi du hasiera batean sorpresaz hartu dutela eta atzeratzearekin ados agertu direla, baina gauzak aztertu ondoren iruditu zaiela dio alkatea ez dagoenean alkateordeak hartzen dituela bere lanak eta gai-ordenean zeuden puntuak ikusita ez zuten ikusten plenoa bertan behera uzteko arrazoirik. Beñatek gizalegea aipatu duela dio eta horren harira adierazi du gaur alkatea udalean ez egonda ere gizalegez udal eraikina ez dela itxi, alkateordeak hartzen dituela bere lanak. Beraz, pleno hau aurrera ez eramateko arrazoirik ez zutela ikusten adierazi du.

Beñat Larrañagak erantzun dio, goizean esan dion moduan eta plenoaren hasieran aipatu duen moduan, legeak hala arautzen duela, burutu daiteke, burutu egin behar zen adostasunik ez bazegoen eta hemen daudela dio prest eta inolako arazorik gabe. Hala ere, eskatu zaiena borondatea eta kortesia izan dela esan du eta kasu honetan ez dela egon, besterik gabe.

Josune Urkolak adierazi du gaurko plenoa udalarentzat beste zereginetako bat zela, beste zereginak alkatea ez zegoelako ez direla bertan behera geratu gaineratu du.

Beñat Larrañagak erantzun dio ados daudela, kortesia kontu bat zela.

Josune Urkolak esan dio kortesia hori beste momentu batean ere agian eskatuko diola.

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Mirazu Azurmendik Zumarte eraikinari buruz ea datorren ikasturtea bertan hasteko moduan izango diren galdetu du.

Lur Etxeberriak erantzun dio Moyuarekin harremanetan dabilzala eta hauek esandakoaren arabera irailean klaseak bertan hasteko moduan izango direla. Hala ere, gaineratu du Covid-aren eraginez bi aste obra geldirik egon dela, baina bi aste horiek erreperatu nahian dabilzala eta irailean ikasturtea bertan hasteko asmoarekin jarraitzen dutela.



Usurbilgo Udala

Patxi Suárezek aurreko puntuko mozioaren harira aipatu du ulertzen dituela Covid-19ren ondorioak diru-sarreretan, baina gaineratu du pentsatu behar dela ere Diputazioak ere murrizketak sufritu behar izan dituela. Zoritxarrez murrizketak denok sufritu ditugula azpimarratu du. Hala ere, horrelako erabakiak denen artean hartzea hobe dela uste du eta beraien mozioan ere horixe bera esaten dela.

Gogorarazi du gaur bertan Eudelen Gipuzkoako batzordeak bilera izan duela diputatuekin eta bere ustez egoera honetatik ateratzeko bidea dela.

Beñat Larrañagak, hasteko, kontuhartzaileari eskerrak eman dizkio eman dituen argibide teknikoengatik eta gehitu du noski denek elkarlana eskatzen dutela baina errealitatea dela dio orain arte elkarlan hori ez dela eman. Beraiek aldarrikatzen dutena elkarlan hori da, baina elkarlan hori nekez abiatu daitekeela uste du momentuan hartutako neurria ez bada indargabetzen.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:24etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.